




## 300 balea hilik aurkitu dituzte Zeelanda Berrian

Golden badian, Zeelanda Berriko uharte handienaren hegoaldean, 416 balea geratu dira hondoa jota. Boluntarioak gogor aritu dira lanean bizirik zeudenak zaintzen marea igo bitartean. Hala ere, 300 zetazeo baino gehiago hil dira jadanik. Balea guzti hauek pilotu (*globicephala*) generokoak dira, haginez hornituta daude, ez balea-bizarrez eta arnasa hartzeko arnas zulo bakarra dute buruaren gainean.



## Asteroide erraldoi bat Lurrerako bidean da

Kilometro bateko diametroa duen objektu batek asteroide-gerrikoa zeharkatu du eta Lurraren orbitarako bidean dago. Otsailaren 25ean egongo da gugandik gertuenen, baina NASAK azpimarratu du ez dela arriskutsua.

## Abiadura eta droga eta alkohol kontsumoa kontrolatzeko 37 kanpaina aurten

Arrisku faktore kontrolatzeko, hala nola abiadura, arreta galtzea edo alkohol eta droga kontsumoa, 37 kanpaina egingo ditu Ertzaintzak aurten, eta horien baitan, motozikleten abiadura kontrolatzeko bi kanpaina egingo dira.

Helburua da bide segurtasuna hobetzea eta trafiko istripuetako biktimen kopurua murriztea. Halaber, berritasun gisa, motozikleten abiadura kontrolatzeko kanpaina zehatzak egingo dira.

Joan den urteko kanpainetan, guztira, 11.536 kontrol eta 214.972 proba egin ziren, eta 10.162 arau hauste hauteman ziren. Kontrolatan batez beste %4,7k eman zuen emaitza positiboa.

## WhatsAppen eguneraketak emotikono berriak ekarriko ditu

WhatsApp berehalako mezularitza zerbitzu ezagunak berrikuntza garrantzitsu bat prestatzen ari da Android sistema eragilea erabiltzen duten mugikorrenentzat. WhatsApp enpresaren hurrengo eguneratzeak (2.17.43) emotikono gehiago ekarriko ditu, eta horiek erabiltzeko aukera izango duten lehen erabiltzaileak

Emotikonoak, 'emoji' bezala ezagunak, azken urteotan ugaritu dira, eta hitzik gabeko komunikazioa bultzatu dute. Normalean, ikono horiek eguneroko bizitzaren ekintza edota objektu bat irudikatzen dute, hala nola, korrika edo igeri egitea.

Zehazki, hurrengo eguneraketak 77 emotikono ekarriko ditu, tartean; kirol berriak, elikagai gehiago, eraikinak, sinboloak eta



animaliak. Gainera, berrikuntzak lanbide gehiago izan ditu kontuan, gizaratean guztiz erroturik dauden estereotipoei aurre egiteko eta herritarren aniztasuna islatzeko.



## 'Batman Lego', euskaraz ikusgai

Zinema Euskaraz Zineuskadi elkarteak sustatzen duen programak "Batman Lego" filma euskaraz eramango du zortzi zinema aretotara gaurtik aurrera, besteak beste, Cinesa Max Ocio aretoan. Aurten, Zinema Euskaraz programaren

baitan estreinatuko den hirugarren pelikula izango da.

Chris McKay zinemagileak zuzendutako ekoizpen berria "Lego" filma munduko fenomeno bilakatu zuen "espíritu adeigabe eta jostagarri" berarekin dator. Lego Batmanek Joker zitalaren konkistatik salbatu nahiko du Gotham hiria.

## Emakume Zientzialarien Eguna



Biharko Emakume eta Neska Zientzialarien Nazioarteko Eguna ospatzeko zientzia-tailerrak antolatu ditu Clara Campoamor zentroan Barakaldok. 11:30ean neska txiki zientzialariei eta beraien familiei (mutil txiki zientzialariak ere gonbidatuta daude) zuzendutako tailerrak jarriko dira martxan, bertan, DNA, paleontologia, astronomia, energia eta CSIren egitekoari buruzko jarduerak egingo dira.

## Aparteko erronka: munduko gailurra zapaltzea



Himalayako gailurra

zapaltzeko aukera gutxi ikusten du Alex Txikon mendizale lemoarrak. Hala ere, saiakera hasi da gaur bertan eta bigarren kanpamendura (6.400 m.) abiatu da bere taldearekin. Bihar deskantsatu eta etzi hirugarren kanpamendura (7.400 m.) ailegatzen saiatuko dira. Astelehenerako laugarren kanpamendura (7.950 m.) iristea espero dute, eta asteartean Everesteko tontorrera ailegatzea. Horrela izango balitz, Txikon eta lagunak neguan eta oxigenorik gabeko munduko lehenak izango lirateke.

## Guns N'Rosen kontzertuak finala Bilbon jokatzea galaraziko du

Guns N'Roses taldearen kontzerturako muntaketa lan konplexuek Kopa finala San Mamesen jokatzea galaraziko lukete. Mendizorrotzan, Celtari 1-0 irabazi eta gero, Errege Kopako finala Bartzelonaren kontra jokatu du maiatzaren 27an Alavesek. Talde estatubatuarren kontzertua, berriz, 30ean.



## Yerayk 2022ra arte berri du kontratua

Yeray Alvarezek eta Athleticcek akordioa lortu dute jokalariaen kontratua beste hiru urtez berritzeko, 2022ko ekainaren 30era arte. Erdiko atzelariak 30 milioi euroko etete klausula izango du. «Oso pozik nago», aitortu zuen Yerayk. Jokalaria osatuta dago barrabil batean atzeman zioten tumoretik

## EGURALDIA

**Larunbatean**, hegoaldeko haizea ibiliko da, hasieran zakar joko du. Temperatura suabeekin jarraituko dugu. Zeruan hodeiak nagusituko dira, baina baliteke eguerdi partean ostarteak irekitzea. Dena den, ez dugu euririk espero.

**Igandean**, berriz, eguraldi nahasia espero da; hego-ekialdeko haize zakarra eta ezatsegina eta tarteka ekialdetik joko du. Goibel egongo da, hodei-geruza trinkoa izango dugu egun osoan. Egunaren hasieran euria nonahi egingo du, nahiz eta geroago atertzera egin. Temperatura maximoak apur bat igoko dira.